



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, BIZKAIKO INDUSTRIA INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

AURKIBIDEA:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK.....	4
1. Elkargokide izatea.....	4
A. Obligaziozkotasuna.....	4
B. Baldintzak.....	6
3. Ordainsariak.....	8
A. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua.....	8
B. Ordainsariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak.....	9
4. Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa.....	10
5. Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa.....	13
6. Elkargoaren baliabide ekonomikoak.....	15
7. Enkarguak Elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei.....	17
8. Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak.....	18
10. Publizitatea.....	19
11. Jardun profesionala sozietate gisa.....	20
IV. ONDORIOAK.....	21

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean LEK), arestian
aipatutako osaera duenak, Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren

Ercilla 4, 2. solairua, 48009 BILBO Tel.: 944 032 813 Faxa: 944 032 801
www.competencia.euskadi.net

Helbide elektronikoa: infocompetencia@avdc.es



Estatutuei buruzko txosten hau (aurrerantzean Elkargoaren Estatutuak) bidali du 2015eko ekainaren 15eko bilkuran.

I. AURREKARIAK

1. 2014ko irailaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean (aurrerantzean LEA), Elkargoaren Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau¹.

Eskumen horien helburua da EAEko merkatuetan lehia eraginkorra sustatzea. Horretarako, zehatzaileak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira.

3. Gure antolamendu juridikoak, elkargo profesionalei buruz arautzen duenak, oinarri konstituzionala dauka. Hain zuzen ere, zera ezartzen du Espainiako Konstituzioko (aurrerantzean EK) 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargoetako lanbideetan lehia askea behar da, eta lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean². Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren

¹ Otsailaren 2ko 1/2012 Legea (EHAA, 29. zenbakikoa, 2012ko otsailaren 9koa).

² 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa (BOE, 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa).



lege-aldaketa berriekin³. Elkargo profesionalen gaineko arauak, bai Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE), Zuzentarau horren aurretiko arauaketa bat dute oinarri; Elkargo Profesionalei buruzko Estatuko 1974ko Legea (aurrerantzean, EPL), eta 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa (aurrerantzean, EEL)⁴. Dena dela, une honetan zuzentaruaren transposizioaren Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako hainbat araudik aldaketa ugari eragin dituzte arau haietan, eta, horrenbestez, baita elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Kontuan hartzekoak dira, batik bat, Aterki Legea (17/2009), Omnibus Legea (25/2009) edo EAEko 7/2012 Legea⁵.

EELaren xedea hauxe da: «Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta EAEn bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea, bai eta oinarriko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartzea ere». Zioen azalpenak dioenez, EAEk soilik dituen eskumenak erabiliz egina da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua kalteetan izan gabe. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulua horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Horrenbestez, EELak ezartzen duenak arautzen du Bizkaiko Industria Ingeniariei Elkargo Ofiziala (aurrerantzean elkargoa); zehazki, 2012an Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko egindako aldaketan arabera testuak. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten

³ 2006/123/EE Zuzentaruak, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa.

⁴ 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa, 40. BOE, 1974ko otsailaren 15ekoa, 7/1997 Estatuko Legeak, apirilaren 14koak, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoak eta elkargo profesionalen buruzkoak ekarritako aldaketekin, 90. BOE, 1997ko apirilaren 15ekoa. Azaroaren 21eko 18/1997 euskal Legea, tituludun lanbideen, eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena (EHAA, 237. zk., 1997ko abenduaren 11koa).

⁵ Azaroaren 23ko 17/2009 Legea (BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa), zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa; eta abenduaren 22ko 25/2009 Legea (BOE, 308. zk., 2009ko abenduaren 23koa), zenbait lege aldatzen dituena zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko; eta apirilaren 23ko 7/2012 Legea (EHAA, 84. zk., 2012ko apirilaren 30ekoa), barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaruak egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideen eta profesionalen elkargoen eta kontseiluen jardunari buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.



manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian berrikusten diren unean».

4. Elkargoek araudiari men egitea ez da estatutuen eta elkargo beraren beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez hitzeko testuak araudiari men egitea, baizik ere, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea da. Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako⁶.

5. Elkargoaren estatutuei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu estatutuetako zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Halaber, adierazi behar dugu Lehiaren Euskal Agintaritzak bi motatako gomendioak emango dituela txosten honetan: araudiaren balizko urraketa agerian jartzen dutenak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteetan aldekoak. Bigarren gomendio-motari dagokionean, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

1. Elkargokide izatea

A. Obligaziozkotasuna

6. Konstituzio Auzitegiak Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua, Elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duenak, interpretatu eta honako hau ezarri du: «Elkargo bateko kide izan beharra konstituzionalki zilegi izango da,

⁶ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalei buruzko txostena*. Madril, 2011, 22. or.



interes publiko bati zerbitzua emateko beharragatik justifikatuta dagoenean»⁷. Horrenbestez, Konstituzio Auzitegiak **legegilea** gaitzen du, hark, egokitzen jotzen duenean, elkargo profesionalean elkartzeko askatasuna eta lanbidea aukeratzeko askatasuna mugatu ditzan —bereziki elkargoko kide egitera behartuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean⁸.

Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arazoak direla eta, justifikatuta dagoenean (12. artikulua).
- Eskakizuna diskriminatzailea ez denean; hau da, ez zuzenean, ez zeharka, diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera (5. artikulua).
- Beharrezkoa izatea; hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzea (5. artikulua).
- Haren helburua lortzeko egokia denean; hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargo bateko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez dagoenean (5. artikulua).
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoitzen denean (5. artikulua).

EAEn, lanbide batean jarduteko elkargo bateko kide izatea eskatzeko aukera hori EELaren 30.1 artikulua arautzen du. Xedapen horrek hau ezartzen du: «elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kidea izatea, **dagokion legeak horrela jasotzen duenean**»⁹. Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna lege-mailako arauraren batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzen.

⁷ Konstituzio Auzitegiaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituena. Era berean, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazioaren Idazkarien, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienean elkargoko kide nahitaez izatea beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak ez dituztelako garatzen lanbidearen antolamenduaren arabera, hain zuzen.

⁸ Halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia hauek daude: 1983ko otsailaren 10ekoak —As. *Le Compte, Van Leuven eta De Meyere kasua Belgika*, edo 1993ko ekainaren 30ekoak — *Sigurdur A. Sigurjónsson kasua Islandia*, A seriea, 264. Azken horretan neurritz kanpokotzat jotzen da taxilari bati taxi-gidarien erakunde bateko kide egiteko legez ezarritako betebeharra.

⁹ 2013ko urtarrilaren 17ko Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko EAO, 37. zenbakia), Andaluziako elkargo profesionalei buruzko legearen gainekoa da; haren arabera, Estatuaren eskumen eskusiboa da elkargoan derrigorrez kide egin beharra ezartzea.



Gainera, elkargoko kide egin beharra lege-mailako arauen batean jaso beharko da hark Lehia Defendatzeko Legearen 4. artikularen babesaren izango badu¹⁰.

Oro har, Omnibus Legeak lanbidera sartzeko eta lanbide batean jarduteko murrizketak ezabatu zituen; baina, etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargo bateko kide izateko beharraren erreforma¹¹. Une honetan, eta elkargo profesionalei buruzko Legearen 3.2 artikularen arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean soilik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraikiz hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu egin dira. Horregatik,aldi baterako, lehendik zeuden elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoeren legezkotasuna mantendu da, maila egokia ez duten arauan ezarrita egon arren.

7. 1332/2000 Errege Dekretuak, uztailaren 7koak, Industria Ingeniariei Elkargo Ofizialen eta horien kontseilu nagusiaren estatutu orokorrak onartzen dituenak, gaia arautzen du; hala bada, 3. artikuluan, industria-ingeniari jarduleek elkargo bateko kide izan beharra ezartzen du¹². Beraz, aipatutako obligazioaren oinarria ez da Lege bat, baizik eta Errege Dekretu bat.

B. Baldintzak

8. EELaren 33.3 artikulua elkargoaren estatutuek izan behar duten edukia arautzen du eta, h idatz-zatian, «elkargoko kidea izatea formalizatzeko eta

¹⁰ Aipatutako 4. artikulua horretako «Legeak salbuetsitako jokoerak» epigrafeak honako hau dio: «Lehiaren defentsaren arloko erkidegoko xedapen behin-behineko aplikazioari kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokoerari». Hala ere, honela jarraitzen du artikulua: «Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondorio direnei, edo botere publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondorio direnei, lege-babesik gabe eginez gero».

¹¹ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargo bateko kide izan beharraren jarraitutasuna aurrekusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, hartara zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko, bai eta interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, adibidez pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan».

¹² 1332/2000 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Industria Ingeniariei Elkargo Ofizialen eta horien kontseilu nagusiaren estatutu orokorrak onartzen dituena; 175. BOE, 2000ko uztailaren 22koa.



izaera hori galtzeko baldintzak» jaso beharko dituztela xedatzen du. Gainera, EELaren 39. artikulua era ere xedatzen du: «Profesionalen elkargoek nahitaez sartuko dituzte eskatzen duten pertsonak elkargoan, lanbide horretan jarduteko lege eskatzen den titulua badutela eta aplikatu beharreko xedapenetan eta estatutuetan oro har eskatzen diren gainerako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren».

Amaitzeko, EELaren 5. artikulua elkargoko kidea izateko betekizunak ezartzen ditu:

1. Jarduera profesional tituludun batean aritu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:
 - a) Dagokion titulua jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.
 - b) Ez egotea desgaitasun profesionala edo egoera.
 - c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
 - d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.
2. Soilik legeak hala araututa, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.

9. Gaia elkargoaren estatutuetako honako artikulua hauetan arautzen da:

12. artikulua. Elkargoko kidea izateko baldintza orokorrak.

3. Elkargoaren Barneko Erregelamenduan elkargoko kidea izatea eskatzeko beharrezko agiriak zehaztuko dira.

13. artikulua. Eskaeren behin-behineko onarpena.

3. Barne-erregelamenduan bestelako baldintza berezi batzuk finkatu ahal izango dira.

10. Estatutuetan argi eta garbi ezarrita egongo dira elkargoko kide egin nahi dutenek bete beharreko baldintzak. Halaber, elkargoko kidea izatea ekintza arautua ez denez, ez dago ukatzerik eskatzaileak horretarako ezarritako eskakizunak betetzen baditu. Horrenbestez, eskakizun horiek alde aurretik ezarrita egon beharko lukete, Aterki Legearen 5. artikulua eskakizunak, aurretik azaldutakoak, bete beharko lituzkete eta publikoak izan beharko lukete.

13.3 artikulua zehaztugabetasunak ziurgabetasun juridikoa sor dezake; horrenbestez, hori ezabatzea aholkatzen dugu.



3. Ordainsariak

A. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua

11. EELak 24.f artikuluan dio elkargoaren berezko eginkizuna dela, besteak beste, «hartzekoak, sariak eta ordainsariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

EPLaren 5.p artikulua araberak, elkargoaren eginkizuna da, halaber, «arduratzea, elkargoaren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik, haien hartzekoen, sari en edo ordainsari profesionalen kobrantzak, betiere, elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuak dituztenean eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

12. Estatutuetan 17. artikuluan arautzen da gai hori.

17. artikulua. Elkargokideen eskubideak.

1. Elkargokide guztiak honako eskubide hauek izango dituzte:

c) Bezeroei kobrantzak egitea elkargoaren bitartez.

13. Hori dela eta, gogora ekarri behar da elkargoaren jardunak ez duela, ez zuzenean, ez zeharka, prezioak finkatzea edo orientatzea helburu izango. «Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua» izeneko elkargoek beren kideen jardura kontrolatzeko tresna posibletzat jo da¹³. Aipatutako zerbitzua elkargokideen eskubideen artean jasota dagoen arren –hori dela eta, elkargokideak berak aukera dezake bezeroei egin beharreko kobrantzak Elkargoaren bitartez egitea edo ez–, profesionalak hori askatasunez eta berariaz eskatu behar du.

«Zerbitzu-ordainak elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar. Alde batetik, kideen artean alde aurretik ordainsarien prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeke ea

¹³ «Zerbitzu-ordainak elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar. Alde batetik, kideen artean alde aurretik ordainsarien prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeke ea profesionalak itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, azaldutakoa bezalako lehiaren aurkako akordiorik ez badago ere, beren kobrantzak elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia bada, horiei buruzko informazioa zabaltzeak lehiaren murrizketak egotea erraz lezake», in LBN. *Elkargo profesionali buruzko txostena... op. cit.*, 73. or.



profesionalek itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, alde aurretik lehiaren kontrako akordiorik ez badago ere, beren kobrantza elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia bada, horiei buruzko informazioa zabaltzeak lehiaren murrizketak egotea erraz lezake»¹⁴.

Horregatik guztiagatik, elkargoak lehiaren aurkako portaerak saihestu beharko ditu arlo honi dagozkion eginkizunetan jarduten duenean, eta elkargokideak askatasunez eta berariaz eskatzen duenean baino ezin duela esku hartu berariaz jaso beharko du.

B. Ordainsariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak

14. EELaren 24. artikulua arabera, elkargoen berezko eginkizunak dira, halaber, «irizpide orientagarriak prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiexek baliatuko dira zerbitzu-sariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.» (e idatz-zatia) eta «zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizial eta administrazio-jardunbideetan txostenak ematea» (f idatz-zatia, *in fine*).

15. Estatutuetan 7. artikuluan arautzen da gai hori.

7. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

2. Orientatzeko asmoz, eta ez mugatzeko asmoz, hauek dira elkargoaren funtzioak:

Elkargoarekin berarekin lotuta

n) Irizpide orientagarriak prestatzea, kostak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko. Irizpide horiexek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko.

x) Irizpenak ematea prozesu judizial eta administrazio-prozeduretako ordainsari profesionalen dagokienez.

16. Omnibus legeak ezabatu egin zuen EPLaren 5. artikulua elkargo profesionalen esleitzen zien funtzio hura –zerbitzu-sari orientagarriak ezartzea, hain zuzen–, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan¹⁵. EPLaren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu elkargo profesionalen «irizpide orientagarriak» (ez baremoak)

¹⁴ LBN. *Elkargo profesionalen buruzko txostena... op. cit.*, 74. or.

¹⁵ EPLaren 14. artikulua: ordainsariei buruzko gomendioak debekatzea: «Elkargo profesionalen eta haien mendeko erakundeen ezin izango dute ordainsari profesionalen buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».



prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

17. Kostuak tasatzeko irizpideak ezartzea dela eta, lehenik eta behin argitu behar da arauak «baremo» orientagarriak ez, baizik eta «irizpide» orientagarriak aipatzen dituela. Irizpide orientagarriak honela definitzen dira: «Kostuak tasatzeko aintzat hartu behar diren elementuak»¹⁶. Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan-kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, debekatutako jardute gisa.

Indarreko araudiarekin bat etorri irizpenak emateko aukera ez da bidezkoa prozesu judizialerako eta administrazio prozedurerako ordainsari profesionalen arloan. Horrenbestez, x idatz-zatia ezabatu behar da.

4. Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa

18. EELaren 11.2 artikularen arabera, lanbidearen jardura irregulartzat hartuko da: lanbideko arau deontologikoak urratzea; lanbidean behar den arretaz ez jardutea eta, ondorioz, elkargokidearen zerbitzu profesionalak hitzartzen dituztenen interesei kalte egitea; eta lehia desleiala egitea, Lehia Babesteari buruzko Legean, Lehia Desleialari buruzko Legean eta profesionalen elkargo bakoitzak lehia desleialari buruz emandako jarraibideetan eta Publizitateari buruzko Lege Orokorrean agindutakoaren arabera.

Gure sisteman indarrean dagoen Lehia Desleialari buruzko urtarilaren 10eko 3/1991 Legeak oso debeku zehatzak ezartzen ditu¹⁷. Besteak beste, nabarmentzekoa da 4. artikuluko klausula orokorra, zera xedatzen baitu: «**Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan**, ulertuko da fede onak eskatzen duenaren kontrakoa dela enpresaburu edo profesional batek prestasun profesionalaren kontrako jokabide bat izatea —merkatuko praktika zintzoen arabera enpresaburu batengandik espero daitekeen gaitasunaren eta arreta berezien mailatzat ulerturik prestasun profesionala—, jardunbide haren xede den batez besteko kontsumitzailearen jokabide ekonomikoa edo —kontsumitzaile talde konkretu bati zuzenduriko merkataritza-jardunbidea bada— xede-taldeko **batez besteko kidearena modu adierazgarrian desorekatzen duena edo desoreka dezakeena**». Klausula orokor horrekin

¹⁶ LBN. *Elkargo profesionalari buruzko txostena... op. cit.*, 71. or.

¹⁷ 3/1991 Legea, urtarilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa, 1991ko urtarilaren 11ko BOE, 10. zk.



bat, arauko 5-31. artikuluek arautzen dituzten jardunbideak bakarrik har daitezke desleialtzat. Publizitateari dagokionez, berriz, azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorra, publizitateari buruzkoak, legez kontrakoak jotzen dituenak bakarrik har daitezke desleialtzat¹⁸.

Intrusismoari dagokionez, EELaren 11. artikulua zera ezartzen du: «Tituludun profesionalak bere entzutera iristen diren intrusismo-kasu eta zalantzazko jardura profesional guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari edo dagokion elkargoari jakinarazi behar dizkio, bere lanbideak elkargorik badu behinik behin.»

19. Elkargoaren estatutuetan honako artikulua hauean arautzen da gai hori:

7. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

2. Orientatzeko asmoz, eta ez mugatzeko asmoz, hauek dira elkargoaren funtzioak:

Elkargoarekin berarekin lotuta

p) Intrusismo profesionala, lehia desleiala eta legez kontrako publizitatea saihestera bideratutako neurriak hartzea, eta Justizia Auzitegien aurrean Industria Ingeniariaren lanbidean horretarako behar diren legezko eskakizunak bete gabe jarduten dutenen aurkako bidezko ekintzak egitea.

Elkargokideekin lotuta

t) Elkargokideek lanbidean jardutean egindako arau-hausteengatik diziplina-ahalmenaz baliatzea.

18. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

Hauek dira elkargokideen betebeharrak:

d) Lanbidearen jardura irregularrak eta intrusismo profesionaleko kasuak elkargoari jakinaraztea.

80. artikulua. Arau-haustea.

3. Arau-hauste larriak izango dira jokabide hauek:

c) 18/1997 Legearen Intrusismoari eta zalantzazko beste jardura profesional batzuei buruzko 11. artikuluan xedatutako jakinarazi beharra urratzea.

g) Lehia desleiala dakarten ekintzak.

83. artikulua. Elkarre profesionalentzako diziplina-araubidea.

3. Hutsegite arinak, larriak eta oso larriak bereizi dira.

3.2. Hutsegite larriak izango dira:

d) Intrusismo profesionala estaltzea.

¹⁸ 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa (BOE, 274. zk., 1988ko azaroaren 15ekoa).



3.3. Hutsegite oso larritzat joko da:

c) Intrusismo profesionala estaltzea.

20. Manamendu horiei dagokienez, egia bada ere Estatutuek Auzitegien aurreko bidezko ekintzak egitearen erreferentzia bat dutela, ezin dugu ahaztu lehia desleialaren erreferentzia orokorrak, Legean jasotakoa baino eduki nabarmen zabalagoarekin erabili ohi denak, lehiaren murrizketak agertzea erraz lezakeela.

Zentzu horretan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostenak lehia bidegabeari buruz jasotzen duena gogoratu behar da: «lehia bidegabearen kasuak definitzea Legeari baino ez dagokio, baita epaileei horiek epaitzea ere. Horregatik, elkargoek epailearengana jo behar dute ustezko lehia bidegabearen kasuetan, eta araubide zigortzaileetan, lehia bidegabeak eragindako arau-hausteak epaile batek hala zigortzen duen kasuetan aplikatuko dira»¹⁹.

Kontuan izanik aldaketak izan direla gaiari buruzko araudian eta kontuan izanik elkargoko kideek ez dutela zertan jakin haien berri, komeni da elkargoaren estatutuetan berariaz aipatzea lehia bidegabeari buruzko legeko zer arautan izan dezaketen eragina profesionalen jardunbideek, elkargoek agintari judizialen aurrean legezko ekintzak har ditzaketenean.

Hori dela eta, lehia desleialaren praktika hipotetikoak gauzatu aurretik elkargoak ekintzak hartzeko aukera izan dezan baztertu behar da.

Horrez gain, zorrotz zaindu behar da manamendu horren garapena eta erabilera, zeren, lehenago ere esan dugun bezala, elkargo bat Lehia Defendatzeko Legearen mende egotea ez da haren Estatutuek hitzez hitz araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen ekintza eta erabaki guztiek ere araudiari men egin behar diote.

Aurreko guztia kontuan hartuta, arau horretan berariaz jaso behar da elkargoaren eginkizuna, hots, identifikatzen diren praktika bidegabeak eskumena duten agintariei jakinaraztea eta, lehia bidegabea aitortzen duen ebazpen judizialik egonez gero, diziiplina-neurriak hartzea.

Tentu berezia izan behar da gutxieneko ordainsariak ezartzea edo ezartzen laguntzea, sariak koordinatzea eta horiek libreki finkatzen ez uztea eragin lezakeen elementurik ez aipatzen. Profesionalen komunikazio komertzialetarako mugak ezartzen edo laguntzen dituzten elkargoaren jarduerak ere saihestu behar dira.

¹⁹ LBN. *Elkargo profesionaleri buruzko txostena... op. cit.*, 75. or.



21. Intrusismo profesionala estaltzea deritzonak froga-inplikazio konplexuak izan ditzake. Estatutuak arau-hausteak sortzen ari direla kontuan harturik, zehapena dakarren prozedurak elkargokideen defentsarako eskubideak errespetatu beharra nabarmendu beharra dago.

Horregatik, intrusismoa estaltzeak garrantzi juridikorik eduki ahal izan dezan aurretik epaile batek intrusismoa dagoela adierazi beharko du. Zehaztapen hori berariaz jaso behar da estatutuetan edo, bestela, jaso litekeen arau-haustea kendu behar da. Arau-haustea larritzat edo oso larritzat jotzen den ere zehaztu beharko da, orobat.

5. Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa

22. Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legearen 15. artikulua «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daitekeela ezartzen du²⁰.

EELaren 24. artikulua hauek arautzen ditu elkargoen berezko eginkizunetan: «Hauek dira Elkargo profesionalen funtzioak:

- a) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesei zor zaien errespetua zaintzea.
- b) Lanbidearen jarduna antolatzea, dagokion eremuan eta ezarritako lege-esparruaren barruan.
- c) Lanbidearen jarduna legezkoa eta egokia izatea eta elkargokideen eginbeharren eta obligazioen betetzea zaintzea.
- d) Diziplina-ahalmenaz baliatzea 19. artikuluan aurreikusitako moduan.
- e) Lanbideko ordainsari-baremoak ezartzea —orientagarriak izango dira—.
- f) Elkargokideek eskatuta, eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehaztu bezala, hartzeko, sari edo ordainsari profesionalen kobrantzaz arduratzea. Laneko ordainsariei buruzko alderdiak eztabaidatzen diren prozesu judizialean eta administrazio-prozeduretan txostena egitea.
- g) Elkargokideei zerbitzu komunak ematea eta, batez ere, etenik gabeko prestakuntza profesionala sustatzea eta lanbideari zor zaion eraginkortasuna zaintzea.
- h) Arbitraje bidez edo artekaritza eginez, elkargokideen artean sortzen diren lanbide-gatazketan parte hartzea, baita elkargokideek hirugarrenekin dituzten gatazketan ere, baldin eta parteek adostasunez hala eskatzen badute.
- i) Elkargokideek egiten dituzten lan profesionalak onestea, elkargoaren estatutuek hala ezartzen badute edo dagokion legeriak hala xedatzen badu. Onespenak honako hauek egiaztatu beharko ditu: lanaren egilea nor den, egilearen titulazioa, gaitasuna eta

²⁰ 3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa, 1991ko urtarrilaren 11ko BOE, 10. zk.



gaikuntza, eta lanaren eduki formala. Onespen horretan ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak; horiek zehaztea parteen esku utziko da.

j) Administrazio publikoarekin lankidetzan jardutea interes komunak lortzeko. Gehienbat, elkargo profesionalek: – Administrazio-organoetan parte hartuko dute, organo horien arauak hala aurreikusten dutenean; eta arau horietan ezarritako moduan jokatu beharko dute. – Eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo beren ekimenez lantzen dituzten txostenak emango dituzte. – Eskatzen zaizkien estatistikak egingo dituzte.

k) Lehia desleiala eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.

l) Aurrekontuak onartu eta elkargokideek egin beharreko ekarpenak arautuko dituzte.

m) Gai espezifikoetarako buruzkoak jakitea eskatzen den epaimahaietarako ordezkariak izendatuko dituzte—hala eskatzen bazaie—.

n) Lanbidearen interesentzat onuragarriak diren eta Elkargoaren helburuak betetzera bideratuta dauden gainerako funtzioak izango dituzte.

ñ) Indarrean dagoen legeriak ematen dizkion gainerako funtzioak izango dituzte.

EELaren 5. artikulua elkargoko kidea izateko baldintza hauek ezartzen ditu:

1. Jarduera profesional tituludun batean aritu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Dagokion tituluaren jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Ez egotea desgaiakuntza profesionaleko egoeran.

c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.

d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.

2. Soilik legeak hala araututa, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.

Bestalde, EPLaren 5.b artikuluan honako hau jasotzen da elkargoen eginkizunei dagokienez: «Administrazioak ematen dizkien eginkizun guztiak betetzea eta harekin lan egitea, ahal denean, ikerketak, txostenak eta estatistikak eginez, eskatzen dizkieten edo bere ekimenez erabakitzen dituen beste jarduera batzuk eginez».

23. Elkargoaren estatutuetan 7. artikuluan arautzen da gai hori.

7. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

2. Orientatzeko asmoz, eta ez mugatzeko asmoz, hauek dira elkargoaren funtzioak:

Administrazioarekin lotuta

c) Administrazio, erakunde eta entitateekin lankidetzan jardutea interes komunak lortzeko, horien organo aholku-emaila edo erabakitzaileetan parte hartzea eta eskatzen dizkieten eta bere ekimenez egitea erabakitzen duten txostenak egitea.



h) Administrazio publikoekin, erakundeekin edo entitateekin lankidetzan jardutea azterlanak, txostenak eginez, estatistikak prestatuz, arbitraje-prozeduretan parte hartuz eta eskudun organoek eskatutako bestelako jarduerak, xedeekin zerikusia dutenak, eta bere ekimenez egitea erabakitako bestelakoak garatuz.

24. Elkargoaren Estatutuetoako manamenduak EPLaren 5. artikulua eta EELaren 24. artikulua kontuan hartuta aztertu behar dira. Izan ere, prozedura judizial, administratibo edo arbitraletan txostenak, irizpenak eta peritu-txostenak emateko eginkizuna —alderdi batek edo agintari judizialak, administratiboak edo arbitralak hala eskatuta— elkargoaren eginkizunen gaintetik dago; horrenbestez, hura beste modu batera idatzi behar da, argi eta garbi utziz elkargoak igorri ditzakeen txostenen xedea ezin direla izan «lanbidearen berezko zerbitzuak»²¹.

6. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

25. Lehiaren Batzorde Nazionalak, egindako Elkargo Profesionalei buruzko Txostenean, hau dio: «Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, Elkargoko kide egiteko zein izateko kuotak garestiak badira, kostu hondoratutzat har litezke —batez ere Elkargoko kide izateak merkatuan jarduteko abantaila konpetitibo nabarmena ematen badu—. Gertaera horrek bi ondorio ditu: alde batetik, lehiakide berriak desanimatzen dira, atzeratu egiten da horiek merkatuan sartzeko aukera eta ezin izaten dute merkatuan sartu eta, horrenbestez, benetako lehia murrizten da. Bestalde, erabiltzaileek eta kontsumitzaileek pairatzen dituzte elkargokide egiteko eta izateko ordaindu beharreko kostuen ondorioa erraztea»²².

26. Elkargoaren estatutuetoan honako artikulua hauetan arautzen da gai hori:

7. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

2. Orientatzeko asmoz, eta ez mugatzeko asmoz, hauek dira elkargoaren funtzioak:

Elkargokideekin lotuta

w) Elkargokideen ekarpenak arautzea eta eskatzea.

²¹ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. IPN 79/12, *Basogintzako eta Natura Inguruneke Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutu orokorrak onesten dituen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa*, 13. orria.

LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. IPN 73/12, *Espainiako Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Adituen Elkargo Ofizialaren eta beren Kontseilu Orokorraren estatutu orokorrak onesten dituen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa*, 10. orria. Horren arabera era guztietako lan eta zerbitzu profesionalak egiteak nabarmen gaintitzen ditu EPLak elkargo profesional bati emandako funtzioak, haren funtzioen artean ez baitu jasotzen lan eta zerbitzu profesionalak egitea.

²² LBN. *Elkargo profesionalen buruzko txostena... op. cit.*, 57. or.

**15. artikulua. Ukatzearen arrazoiak**

Ukatzeko honako arrazoi hauek egongo dira:

d) Elkargoko kide egiteko edo izateko kuota, halakorik badago, ez ordaintzea.

18. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

Hauek dira elkargokideen betebeharrak:

a) Erregelamenduz sostengatzeko eta garatzeko dagozkion elkargoaren ohiko eta ezohiko kuotak ordaintzea, bai eta zerbitzuetarako ezarritako kuotak eta eskubideak ere.

19. artikulua. Elkargokideen eskubideak etetea.

1. Elkargoaren ohiko eta ezohiko kuotak horretarako adierazitako epeen barruan ordaintzen ez dituztenei elkargokide-izaera etengo zaie, eta halakotzat legozkiekeen eskubide guztiak galduko dituzte aipatutako kuotak zein etendako denboran gainontzeko elkargokideei kobratutakoak ordaintzen dituzten arte.

20. artikulua. Elkargokidearen izaera galtzea.

Elkargokidearen izaera galdu ahal izango da honelako kasuetan:

c) Gobernu-batzarrak elkargoaren kuotak behin eta berriz ez ordaintzeagatik edota estatutu hauetan jasotako bestelako betebeharrak ekonomikoak ez betetzeagatik hartutako erabakiaren bidez, horietan eta baliozkotasunez hartutako erabakietan finkatutako moduan, gutun ziurtatu bidez horretarako egindako bi errekerimenduren ostean.

30. artikulua. Elkargoaren Batzar Orokorren eskumena.

Elkargoaren batzar orokorrari bakarrik dagokio:

e) Elkargoaren ohiko eta ezohiko kuotak finkatzea. Batzar orokorrak unean unean eta berariaz agindu ahal izango dizkio gobernu-batzarrari kuotak finkatzea.

74. artikulua. Elkargoaren baliabide ekonomikoak.

1. Honako hauek izango dira elkargoaren ohiko baliabideak:

a) Aldizkako kuotak.

b) Lan profesionalei dagozkien agirien eta sinaduren gaineko onespenak, legeztatzeak, erregistroak, ziurtagiriak ekarritako diru-sarrerak.

d) Kudeatzen dituen zerbitzu, ikastaro eta argitalpenengatik lortzen dituen onurak eta eskubideak.

2. Elkargoak ezohiko baliabide hauek izango ditu:

b) Batzar orokorrean halakotzat erabakitako ezohiko kuotak.

e) Elkargoak zehaztu gabeko beste edozein kontzepturengatik jaso ditzakeen zenbatekoak.

27. Batetik, elkargoan **sartzeko** egiten diren eskaerentarako ezartzen den **kuotak** proportzionala, ez diskriminatzailea eta oinarriduna izan behar du; horrez gain izapidetzeak eragiten duen benetako kostua oinarri hartuta ezarriko da. Zentzu horretan, sartzeko kuota ez da erabili behar lanbidera jotzeko



pizgarria kentzeko bidetzat, are gehiago lanbidean jarduteko elkargoko kidea izatea, behin-behinean gutxienez, nahitaezkoa denean.

Halaber, **elkargoaren kuotak**, ohikoak edo ezohikoak, **baita ekarpenak ere**, unean-unean eta berariaz finkatutakoak barne, proportzionalak eta ez diskriminatzaileak izango dira, eta elkargoak elkargokideari emandako zerbitzuak oinarri hartuta kalkulatu dira, eta ez elkargokidearen lanagatik jasotako ordainsariak oinarri hartuta.

7. Enkarguak Elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei

28. Elkargoaren estatutuetan 17. artikuluan arautzen da gai hori.

17. artikulua. Elkargokideen eskubideak.

1. Elkargokide guztiek honako eskubide hauek izango dituzte:

h) Entitateek edo partikularrek elkargoari eskatutako proiektuak, irizpenak, peritoxostenak edo bestelako lanak egitea, betiere aurretiaz ezarritako txandaren arabera horrelakoak badagozkie.

29. Elkargoan lanak egiteko txandakako zerbitzua ezartzeari dagokionez, gogoratu beharra dago elkargoak ez duela ezarri behar paragrafo honetan azaldutakoaren moduko merkaturik banatzeko sistemarik. Txandek, batzuetan, bereziki kaltegarriak diren konpentsazio-mekanismoak erantsita izaten dituzte, horrelakoek, izan ere, profesionalen arteko lehiaren pizgarria kentzen dute bezeroen kaltetan. LBNk hainbatetan eman du aditzera zer iritzi duen banatze-txandak direla eta²³.

Profesionalen jardunak lehiaren defentsarako arauak izan behar ditu goiburu, eta elkargoak ez du zertan mugatu profesionalen gaitasun konpetitiboa. Hala, elkargoak ez du profesionalen jarduna koordinatzera bideratutako ekintzarik egin behar, ez eta zerbitzuen eskaintza homogeneizatzen lagundu behar ere.

Elkargoari agindutako lanak egiteko elkargokideen artean txandak ezartzea LDLaren 1. artikulua arau-haustea izan daiteke, eta horrek zehapena eragin dezake. Horrenbestez, xedapenaren h idatz-zatia ezabatu behar da.

²³ LBNren Kontseiluaren ebazpena 639/08 – *Gaztela-Mantxako Farmazeutikoen Elkargoa*, espedientean, 2009ko apirilaren 14koa, eta LDAren ebazpena 562/2003 – *Bilboko Notarioen Elkargoa*, espedientean, 2004ko uztailaren 21ekoa, besteak beste.



8. Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak

30. Aterki legearen 21. artikulua erantzukizun profesionaleko aseguru eta bermeei buruzkoa da, eta hark xedatu zuen lege baten aginduz baizik ezin zaiela exijitu zerbitzu-emaileei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat, edo antzeko beste bermeren bat, sinatua izatea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzeko²⁴. Artikulu berak ezarri du obligazio hori legez noiz exijituko den erabakitzeko irizpide gisa ematen diren zerbitzuek zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzea hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari.

EELaren 12. artikulua, hala, xedatu du tituludun profesionalek aseguru baten bidez estali behar dituztela beren jarduera profesionalak eragin litzakeen arriskuak, eta lanbideak elkargo profesionalik badu, Elkargoak hartu beharreko neurriak hartuko dituela bere kideek betebeharrak hori betetzen dutela bermatzeko.

31. Gai hori elkargoaren estatutuetan araututa dago honako manamendu hauetan:

7. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

2. Orientatzeko asmoz, eta ez mugatzeko asmoz, hauek dira elkargoaren funtzioak:

Elkargokideekin lotuta

z) Elkargokideek asegurua izateko betebeharrak betetzen dutela bermatzeko beharrezko neurriak hartzea.

16. artikulua. Onspenaren eragin orokorrak.

2. Elkargoan sartzeak, norberaren eskariz, elkargokidea Aseguramendu Kolektiboko Polizetan eta elkargoaren aurreikuspen-hitzarmenetan sartzea dakar, baita elkargoko kide izateko eskabidean eskatutako bestelako elkargoko zerbitzuetan ere, betiere dagozkien arauetan xedatutako baldintzetan.

18. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

Hauek dira elkargokideen betebeharrak:

²⁴ Aterki Legearen 21. artikulua. Erantzukizun profesionaleko aseguruak eta bermeak. 1. Zerbitzu-emaileei exijitu ahal izango zaie lege-mailako arau baten bidez erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko beste berme bat sinatzea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzearen, ematen diren zerbitzuek hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzen dieten kasuetan. Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da. Horiek jaulkitako ziurtagiriari onartu egindako dira akreditazio gisa. (...)



g) Jardun profesionalaren ondorioz izan dezaketen erantzukizun zibileko arriskuak aseguru egokiaren bidez estaltzea.

80. artikulua. Arau-haustea.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

d) Asegurua egiteko betebeharra ez betetzea.

83. artikulua. Elkarte profesionalentzako diziplina-araubidea.

3. Hutsegite arinak, larriak eta oso larriak bereizi dira.

3.2. Hutsegite larriak hauek izango dira:

g) Asegurua egiteko betebeharra ez betetzea, indarreko legeriak horrela eskatzen duenean.

32. Alde horretatik, Elkargoak hauek izango beharko ditu kontuan:

- Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.

- Hori dela eta, elkargoak aintzat izan beharko du ezin dituela inola ere bere kideak aseguru edo aseguru-etxe jakin batekin bat egitera behartu.

Bigarren alderdi hori –aseguru edo konpainia zehatz bat ez ezartzea– behar bezala jasota dago estatutuetan.

33. Aurretik aipatutakoari jarraiki, soilik legearen bidez eskatu ahal izango zaie zerbitzu-emaleei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat izatea edo baliokidea den beste berme bat izatea. Aseguru edo berme horrek zerbitzua ematean sor daitezkeen kalteak estaltzeko modukoa izan beharko du. Horrez gain, aurreko manamenduetan argitu behar da aseguru izateko betebeharra indarreko legeriak hala eskatzen duenean baino ez da egingo. Nolanahi ere, aseguruaren zenbatekoa proportzionala izango da.

10. Publizitatea.

34. Omnibus Legeak aldatu egin du EPLa, profesionalen komunikazio komertzialei Legean jasota ez dauden mugak gehitzeko; horrela bada, elkargoek beren arauetan publizitatearen arloan ezar ditzaketen xedapenek –lanbidearen independentzia eta osotasuna zaintzearen esaterako– elkargoei legeak betetzeko baino ezin izango diete eskatu.

Hala, 2.5 artikulua bigarren lerroak zera xedatzen du: «elkargoen estatutuek, edo elkargoek, hala badagokio, onartzen dituzten kode deontologikoen, berariazko aurreikuspenak jaso ahal izango dituzte elkargoko profesionalen komunikazio komertzialen arloko jokabideak legean



xedatutakoa bete dezan, lanbidearen independentzia eta osotasuna, bai eta, hala badagokio, sekretu profesionala ere, zaintzearren».

35. Horrenbestez, elkargoaren barneko arau edo kode deontologikoetan ezin izango dira ezarri Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorak aurreikusitako mugak baino handiagoak. Horrez gain, Lege beraren 5.1 artikulua zera xedatzen du: «beren arau bereziek erregulatu edo alde aurreko administrazio-baimenaren araubidearen mende jarri ahal izango da osasun-materialen edo -produktuen eta araudi tekniko-sanitarioak bete beharrekoen publizitatea, bai eta pertsonen edo haien ondarearen osasun edo segurtasunari arriskuak eragin dizkieketen produktuen, ondasunen, jardueren eta zerbitzuen publizitatea ere, edota zori-, ausa- edo adur-jokoaren gaineko publizitatea denean. Araubide hori ere ezarri ahal izango da konstituzioan aitortutako balioak edo eskubideak babesteko behar denean»²⁵.

36. Gai hori elkargoaren estatutuetan araututa dago 7. artikuluan.

7. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

2. Orientatzeko asmoz, eta ez mugatzeko asmoz, hauek dira elkargoaren funtzioak:

Elkargoarekin berarekin lotuta

p) Intrusismo profesionala, lehia desleiala eta legez kontrako publizitatea saihestera bideratutako neurriak hartzea, eta Justizia Auzitegien aurrean Industria Ingeniariaren lanbidean horretarako behar diren legezko eskakizunak bete gabe jarduten dutenen aurkako bidezko ekintzak egitea.

37. Elkargoek ezin dute 34/1988 Legeak aurreikusitako mugak baino handiagorik ezarri; hori dela eta, komeni da aipatutako artikuluko horiek aldatzea jasotako debekuak edo elkargoak, hala badagokio, hartu nahi dituen neurriak legeak hertsiki ezarritakora mugatzearen.

11. Jardun profesionala sozietate gisa

38. Jarduera profesionalak sozietate profesional gisa egitea Sozietate Profesionalei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legeak araututa dago²⁶.

²⁵ 29/2009 Legeak, abenduaren 30ekoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa hobetzeko lehia desleialaren eta publizitatearen legezko arauak aldatzen dituenak, emandako idazketa; 315 zenbakidun BOE, 2009ko abenduaren 31koa.

²⁶ 2/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, Sozietate Profesionalei buruzkoa, 2007ko martxoaren 16ko BOE, 65. zk.



SPLaren 1.3 artikulua haxe ezartzen du: «sozietate profesionalek Lege honetan eta, ordezeko moduan, hartutako sozietate-formari dagozkion arauetan xedatutakoa beteko dute. Horrez gain, EPLaren 2.6 artikulua honela dio: «sozietate gisako jardun profesionalak legeetan aurreikusitakoa beteko du. Elkargo profesionalek edo mendeko erakundeek ezingo dute berez edo estatutuen zein elkargoaren gainerako arauen bitartez sozietate gisako jardun profesionala mugatu».

23. artikulua. Sozietate profesionalen integrazioa.

2. Lanbidea sozietate gisa gauzatzeko garaian Sozietate Profesionalei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legea eta estatutu hauen 26. artikulua beteko dira.

39. SPLan eta EPLan xedatutakoari jarraiki, sozietate profesionalek SPLa eta, ordezeko moduan, hartutako sozietate-formari dagozkion arauak beteko dituzte. Horrenbestez, estatutuei egindako erreferentziaren ordezkio sozietate profesionalak hartutako sozietate-formari dagokion araudiaren erreferentzia egin beharko litzateke.

IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargoko lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

Bigarrena.- Elkargoek lanbideen jarduna antolatzeko orduan elkargokideen zerbitzuen erabiltzaileen interesak babestea izan behar dute gogoan nagusiki, gizartearen interesekin eta beharrekin bat etorriz, eta ez interes korporatiboak defendatzea soilik.

Hirugarrena.- LDLaren mende egotea ez da mugatzen elkargoaren estatutuek hitzez hitz araudiari men egitera, elkargoaren ekintza eta erabaki guztiek men egin behar baitiote.

Elkargoak saihestu behar ditu gutxieneko ordainsariak ezartzea edo ezartzen laguntzea, sariak koordinatzea edota horiek libreki finkatzen ez uztea eragiten duten jokabideak. Profesionalen komunikazio komertzialetarako mugak ezartzen edo laguntzen dituzten elkargoaren jarduerak ere saihestu behar dira.

Laugarrena.- Lehiaren Euskal Agintaritzak, txosten honen bidez, Bizkaiko Ingeniari Industrialen Elkargoaren estatutuko artikulua hauek aldatzea behar-beharrezkoa dela planteatzen du:

7.2.c. (Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa)



- 7.2.h. (Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa)
- 7.2.p (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa) (Publizitatea)
- 7.2.t (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa)
- 7.2.z (Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak)
- 16.2 (Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak)
- 18.d (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa)
- 18.g (Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak)
- 23.2 (Jardun profesionala sozietate gisa)
- 80.3.c (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa)
- 80.3.d (Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak)
- 80.3.g (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa)
- 83.3.2.d (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa)
- 83.3.2.g (Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak)
- 83.3.3.c (Elkargoko kideen arteko lehia desleiala eta intrusismoa)

Baita honako artikulua hauek ezabatzea ere:

- 7.2.x (Ordainsariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak)
- 13.3 (Elkargoko kide izateko baldintzak)
- 17.1.h (Enkarguak elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei)

Eta kontu handia gomendatzen du honako alderdi hauei dagokienez lehiaren kontra ez jarduteko:

- Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua (Ordainsariak)
- Sartzeko kuota, elkargoaren kuotak (ohikoak eta ezohikoak) eta ekarpenak (elkargoaren baliabideak) kobratzea

Bilbon, 2015eko ekainaren 15ean